

Noaia !!



Igande honetan,
III. Baxurde Krossa



Euskal antzezleen bilgunea
izango da Usurbil egun hauetan

Paxpolin
mertzzeria



FRANTSSES HIZKUNTZA klaseak Usurbilen!!!

Iaz Usurbilen Frantses klaseak hasi ziren, 20 ikasleekin, izandako arrakastarengatik, aurten ere irailaren 13an hasiko gara gainbegiratzen, beraz hilabete osoan batu zaitezte!!

Zertxobait jakin, ahaztu eta berreskuratzeko gogoz bazaude, hauxe da zure aukera.

Frantzia hortxe bertan dago. Hitz egitea ahalbidetuko dizun oinarrizko maila lortu nahi baduzu, garaiz zaude!

Maila guztientzat klaseak aurten KONTSEJU TXIKIN, izango dira (Etxebeste 15) eta daukazu mailaren arabera klaseak astelehenetik ostegunera 18:00 eta 21:30 bitartean izango dira. Hau jakin dezagun, test txiki bat egingo da maila edo ezagutza neurtzeko.

Irakaslea Hizkuntza eskola ofizialean eta L' Alliance française (C2) diplomatua

Informazio gehiagorako: 609 75 47 99



*Frantziatik sagardoa
janzteko modua?*

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31
Mobila: 670 02 77 31



SAGARDOTEGIA

K M D N
hizkuntzak

Congratulations

Aitziber O.
Andoni L.
Imanol O.

Cambridge University-ko
azterketa
gainditzeagatik **ZORIONAK**

English courses

Matrikulazio epea zabalik

informa zaitez!

Zubiaurrenea 6 - 943 37 14 02

Albistea iruditan!!

"Zero Zabor" aldarria Kontxako Banderan

Igandean, Kontxako Banderaren bigarren jardunaldian, errausketaren aurkako eta zaborrik gabeko lurralde baten aldeko aldarrikapenak Donostiako kairaino eraman zituzten, Gipuzkoa Zero Zabor mugimenduko kideek, ondoko irudian ageri den moduan "Errausketarik ez!" eta "Zero Zabor" zioten txartelek. Sei urteko moratoria eskatzen dute Zubietan eraiki nahi duten errauste plantarentzat, euren esanetan, "ingurumena eta osasunarentzako kaltegarriak ez diren ereduak aukera bat emanez".

Giza-katea ere burutu zen Kontxako hondartzan, Gipuzkoako Errausketaren Aurkako Plataformen Koordinakundeak deituta.



GIZA-KATEA ERE EGIN ZUTEN KONTXAKO HONDARTZAN.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Aitor Eleta, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbietta, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Garazi Iturralde, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Maddi Galbete, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

KRONISTAK KALEJIRAN _____ 6. OR.

BAXURDE KROSSA, IGANDEAN _____ 9. OR.

II. TOPA ESZENIKA _____ 10. OR.

EPA-N ERE, MATRIKULAZIOA ZABALIK _____ 12. OR.

AUTORIK GABEKO EGUNA, 22AN _____ 13. OR.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

TAXI
677 37 34 66
943 36 69 69
Jose Etxabe (24h) USURBIL

ANTXETA
taberna-jatetxea
ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak
EGUZKITZA, 4 · 943 370 344

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO



LUIS ARANALDE

“Ur zikina”

Eman du zeresanik, alajaina, Joxe Arregi frantziskotarraren sekularizazioak. Sei bat urte badira oso gertutik jarraitzen diodala, batez ere, “Hemen” aldizkaria sortu zuenetik gaur arte. Iaz ospatu zen aldizkariaren lehen bosturtekoa eta efemeride horretan elkarrekin hitz egiteko aukeratxo bat ere izan genuen. Fraide izateari utzi dio (hau da, hiru boto edo promesak: pobrezia, obediencia eta kastitatea laga ditu), baina apaiz izaten jarraituko du. Arroan hartu du apartamentu bat eta Antropologia irakatsiko du Deuston.

Ez da erraza zutabetxo honetan laburbiltzea berari buruz esan nahi nukkeen guztia. Baina, saiatuko naiz. Eta hiru hitz datozkit burura bere ibilbidea, pentsamendua, estiloa eta kristau elkartearantzat izan duen ekarpena adierazteko.

1-ASKATASUNA. Hau da gehien azpimarratu nahi nukenea; libertateari himno bat da Joxe. “Jesusen, gizon librea eta ona, ikasle izaten jarraitu nahi dut; ezin diot uko egin ebanjelioari, eta horregatik esan dut ez naizela isilduko”, zioen duela gutxi. Zalantzarik gabe, bere kontzientzia Gotzain eta autoritate guztien gain dago. Gune sakratu horretan ezin da inor sartu.

Erakunde erlijioso guztiak (Elizbarrutia, Kongregazioak...) gero eta lotuagoak eta beldurtiagoak daude; ausardia falta zaie eta arriskuak hartzeari uko egin die. Arregiren ametsa da, fraide izateari utzita, askatasun gehiagorekin, orain arte izan dena izaten jarraitzea eta orain arte egin duena egiten segitzea.

2-ZERBITZUA. Bi pertsona klase daude gure erakunde erlijiosoetan: batetik, botereari eutsi eta ahal bada indartu nahi dutenak eta bestetik, instituzio horiek herriaren zerbitzuan jarri nahi dutenak. Bigarren multzoan sartzen da Joxe. Botereari eutsi nahi diotenek ez dute onartu Arregiren zenbait kritika zorrotz; sektore ofizialak, J.I.Munilla buru delarik, dauka botere guztia eta ez du toleratzen zalantzan jartzea bere agintea.

“Zerbitzatzaera etorri nintzen eta ez besteen zerbitzuak har-

tzaera”, esan zuen Jesus nazaretarrak. Horixe jarri nahi luke praktikan Arregik. Munillaren aurka ez dauka ezer, zorte onena opa dio gainera, bai baitaki peoi bat besterik ez dela sistema eklesiastiko anakroniko eta askotan gaizto (“inhumano” bere hitzetan) batean.

BERRIKUNTZA. Gure inguruan baldin bada norbait hizkuntza teologikoa berritzen saiatu dena, hori Joxe da. Ondo aski daki gaurko sermoietan erabiltzen diren hitz askok ez dutela ezer esan nahi. Gure esamolde, lokuzio teologikoak guztiz itzuli egin behar dira hizkuntza moderno batera, gaurkotu, bestela inork ez du ezer ulertzen. Lan hori hartu zuen askotan Arregik. Nola adierazi, hain zuzen, gaurko gizarteari Bepiztuera, Trinitatea, Jainkoa, Sortzez garbia, jatorrizko bekatua, salbazioa eta abar. Jakina, berak adierazten duen bezala, Elizak hizkuntza gutxi gora behera komun bat behar du ideia horiek adierazterakoan; baina, askatasuna emanez teologoi betiko dogma horiek hitz berriekin adieraz ditzaten. Horretarako Elizak askoz ere demokratikoagoa izan beharko luke.

Arregiren kasu honetan Ebanjelioak irabazi du, libertateak, esperantzak, intsumisioak. Eta Eliza hierarkikoa edo ofizialak galdu: portaera hain errepresiboekin hierarkia gero eta baztertuagoa gelditzen ari da, sinesgarritasun guztia ia galdu du.

Joxekin bat egin dute talde askok, batez ere, kristau mugimenduetan lan egiten dutenek, kontzientzi libertatearen alde borrokatzen dutenek eta oro har, gizarte libreago baten alde ari direnak.

Joxe, ur garbia, gardena zara zu, ez “zikina”. Izan bihotz! Zurekin sortuko dugu Eliza berri bat, zerbitzaria, librea, entzuten eta konpartitzen dakiena. Jarrai horrelaxe. Eta Asisko San Frantziskoren hitzez opa dizut: “bake eta on”!

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Joxe Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregerai

Ika-mika !!

Asko dugu hobetzeko

Erraustegia etxe aurrean (begi bistan edo ez) jarri nahi dutela jakiteak estutasuna sortu digu, irtenbide bila garuna estuarazi digu. Baita irtenbide ederra aurkitu ere, alajaina!

Hernani eta Oiartzunekin batera atezateko bilketarekin hasi ginenetik, emaitza ikusgarriak lortu ditugu Usurbilgo herritarrok, Italiako sortzaileek baino hobek!

Tximinia erraldoi horren eraikitzaileak izugarri larritu dira, herritarrei zaborra desagertuko duen teknologia puntakoa dela esanda nahikoa ez dela ohartu dire-

nean. Irtenbideak min eman die. Hori dela eta, arkumeak pasieran atera dituzte mamuak sor ditzaten. Txoko guztiak nahasten saiatu dira.

Ahoa gezurrez beteta daukazunean, ordea, hitz egitea ez da erraza, mamuak sortzea are zailagoa. Hala ere, trebeziarik ez zaie falta (ezta lotsarik ere). Ederki moldatzen dira. Tamalez, badakite, gauza berbera behin eta berriz errepikatuta, memeloenek (eta ez hain memeloek) sermoia irensten dutela.

Baina, guk ere baditugu begiak, belarriak, ahoa... Eta hauetaz baliatuko gara

garunak eta bihotzak esaten diguna egiteko. Pauso ikaragarria eman dugu. Orain, pauso tikiak egiten jarraitu behar dugu etengabe. Azken finean, zaborrik onena sortzen ez dena baita. Horretarako gure joerak aldatzen hasi behar dugu, ohitura aldaketa batek ondorio garrantzitsuak baitakartza.

Aukeratu dugun bidezidorra egokia da eta ez du atzera bueltarik (?), baina asko dugu hobetzeko, erraustegirik gabeko eta Zero Zabor-eko Gipuzkoa bat eraiki nahi badugu.

Beñat Irazusta

“Zurea bai zortea” lelopean aurkeztu dute Buruntzaldeko euskaltegien matrikulazio kanpaina

Ikasketa eskaintza zabala prestatu dute Etumeta-AEK euskaltegiak ikasturte berriako; hizkuntz eskakizunen prestaketak, mintzalagun ekimena, euskalduntze maila guztiak, 1., 2., 3. hizkuntza eskakizunak eta EGA prestatzeko ikastaroak... Eta aurten, nobedade bezala, autoikaskuntza ikastaroa. Matrikulazio kanpaina aurkeztu zuten joan den astelehenean.

“Zurea bai zortea” lelopean aurkeztu zuten joan den irailaren 13an, 2010-11 ikasturteari begirako euskaltegien matrikulazio kanpaina, Urnietako Lekaio kultur etxean. Prentsaurrekora, Buruntzaldeko udal eta euskaltegiatako ordezkariak edota euskara teknikariak bertaratu ziren. Usurbildik euskara eta kultur arloko zinegotzi Nerea Erauntzetamurgil eta Etumeta-AEK euskaltegiko arduradun Olatz Urdanpilleta. Hiru ardatz nagusitan laburbildu zituzten matrikulazio kanpainaren nondik norakoak: euskara ikasteko gertutasuna, euskaltegiatako eskaintza zabala eta euskara ikasteko lekuan lekuko dauden dirulaguntzak.

Kanpaina honen eragileen helburu



IKASTURTE BERRIKO KLASEAK URRIAREN 4AN HASIKO DIRA ETUMETA EUSKALTEGIAN. PRENTSAURREKOAREN BIDEA, NOAUA.COM WEB ORRIAN.

nagusia, aipatzen zutenez, “helduen artean, pertsona elebarririk ez egotea da”. Eta euskara ikasten ari direnak euskal mundura, euskal kulturara gerturatzea, baita “herritarren aukera berdintasunera ere”.

www.buruntzaldea.org

Buruntzaldea mailako web orrialdeak euskaltegiei lotutako hainbat informazio eguneratu eskaintzen du: ikastaroen bilatzailea herrika eta mailaka, testak eginez nork bere euskara maila ezagutzeko aukera eta baita matrikulazio

eskaera egitekoa ere.

Matrikulazio epea zabalik

Euskaltegia astelehenetik ostiralera zabalik egongo da; goizez, 11:00-13:00 artean eta arratsaldez, 18:00-20:00 artean.

Informazio gehiagorako eta matrikulatzeko badira beste bi komunikazio bide ere: 943 372 001 telefono zenbakia eta usurbil@ae.org e-posta helbidea. Ikasturteko klaseak urriaren 4an abiatuko dituzte Etumeta-AEK euskaltegian.

Eiñean Guraso Eskolak ikastaro ugari prestatu ditu

Aurreko astean iragarri genuen bezala, Eiñean Guraso Eskolak eta Udalak 9 ikastaroz osatutako eskaintza prestatu dute. Honakoak dira aukeran dauden ikastaroak: laboreak, saloi dantzak, yoga, memoria lantzen, sukaldaritza, eskulanak, bitxigintza, sabel dantza eta masajea. Ikastaro guztiak urrian abiatuko dira.

Irailaren 24an, izen-ematea

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek aldeztu aurretik izena eman behar dute. Irailaren 24an, ostirala, Etumeta-AEK euskaltegiko egoitzara hurbildu behar dute ikastaro hauetako batean matrikulatzera.

Goizez, 10:00-11:00 artean edo arratsaldez, 17:00-19:00 artean.

Laguntzaileak behar dira

Bestela, honako telefono zenbaki honetara ere deitu daiteke: 615 006 535 (arratsaldez deitu: 17:00-19:00).

Ikastaro hauen antolakuntza-lanetan parte hartu nahi dutenek aipatu telefono zenbakira deitu dezakete edo elkarrekin kideekin harremanetan jartzeko gonbita luzatzen dute antolatzaileek.



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA

TEL. 36 61 97



txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

piatxoak
ogitartekoak
piater konbinatuak

TABERNA

SANTUENEA

IÑAKI LARRAÑAGA

Festak, festak



Bai, bai, urtea pasa dela, nahi baino azkarrago ziurrenik ezta? Niretzat bai behintzat, adinaren kontua izango da. Baina utz dezagun kontu hori, badakizue aste honetan ditugula auzoko festak, animatuta al zaudete? Baietz espero dut, ze etorri azkar etortzen dira, baina pasa azkarrago. Beraz datozenak ere aprobetxatu beharko ditugu.

Ez dakit nik eguraldiak lagunduko gaituen edo ez, etortzen den bezala hartu behar dugu, baina azkeneko urtea izango da aterperik gabe, eta pena handia litzateke eguneko ekitaldietan eguzkiak eta gauekoetan ilar-giak ez laguntzea.

Bestalde, espero dugu orain dauden obrak astebukarako nahiko aurreratuak egotea, denetarik entzun dut, batzuek baietz diote, beste batzuek berriz nahiko zaila ikusten dute. Laister ikusiko dugu zer gertatzen den aipatu lan hauekin.

Frontoi berriari buruz, dirudienez urrian hasiko omen dira, dirudienez, hau egia den edo ez ere, laister ikusiko dugu. Berez eta oker ez banabil, abuztuan ziren



hastekoak baina lagun batek zioen bezala (baietz Enrike?) ez zuten esan ze urtetakoa. Noski txantxetan, ze bi hilabete atzeratzeagatik, hainbeste urteren ondoren ez da ezer.

Beno, esan bezala, aprobetxa itzazue festak, ze horien atzean, lan asko dago, eta hori eskertzeko modurik onena, festetan parte hartzea da. Animo eta gora Santuenerako festak!!!

KALEZAR

MADDI GALBETE

Gero arte



1 aldiz hasi naiz artikulu bera idazten eta bakar batek ere ez dit konbentzitzen. Agurrak beti izan ohi dira pixka bat zailak eta akaso horregatik izango da. Baina sarritan egin beharrekoak izaten dira, batez ere niri bezala, kanpora joatea gustatzen bazaizu. Oraingo honetan ordea ez da agur "xinp" bat, seguru aski sekula ez naizelako horrenbeste denborarako kanpora joan. 6 hilabete luze edo motz egingo diren ez dakit, nahiz eta motzak egingo zaizkidala espero dudana. Bolivian ordea ez dakit ze abiadura duen denborak; ez dakit nolakoa izango den sortuko dudana errutinaren erritmoa. Egia esan ez dakit ezer: ez dakit zerekin topatuko naizen eta zer egin ahal izango dudana. Eta hori bertara iritsi arte jakingo ez dudana inkognita besterik ez da. Beste mila pelikula egin ditut honezkero buruan eta jakiteko gogo geroz eta handiagoa da.

Ba bai. Boliviara noa 6 hilabetez, eta bertigo apur bat ematen badit ere... Gogoak ez zaizkit barruan kabitu ere egiten eta den dena emateko prest abiatuko naiz. Eta bueltatu ere, bueltatuko naiz. Eta bertan bizitako pasarteak kontatuko ditut, uzten badidazue. Mila esker eta gero arte, irakurle.

ATXEGALDE

MARIA JESUS URBIETA

Parisera bidaia

Udako oporraldiaren ondoren, hemen naiz berriz ere zuekin. Atxegaldeko festak joan zaizkigu. Jendea gustora ikusten zen abuztu amaieran ospatu ziren auzoko jaietan. Giro polita zegoen, besteak beste, kantu afari arrakastatsuan edo eguerdian plazan auzoko bizilagunen artean egindako bazkari, mus txapelketa, toka edo jaietako azken eguneko salda eta azken eguneko haragi pintxo goxoen banaketan.

Beraz, jarraitu halaxe eta eskerririk asko bertan lan asko egin duen gazte jator taldeari, baita Joakin eta Maria Luisari ere.

Gaia aldatuz, frantseseko ikastaroari begira, urte eta erdi da aukera dugula herrian hizkuntza hau ikasteko. Kontzeju Txikin bizi den Antxon Quiroga dugu irakasle. Garai hartan hasi ginen talde batek, bidaia bat egin dugu orain gutxi Parisera. Ikusi eta ikasi zen leloa, eta merezi izan du. Beraz gustuko ideia izanez gero, jo Kontzeju Txikira edo Laurok liburu dendara eta galde-tu. Helduentzat hutsetik hasita edo ahaztu dutenentzat gogoratu ahal izateko aukera dago.

Bestalde, Kiroldegia ere hasi da lanean opor txiki batzuen ondoren eta bertan gabiltzan gimnasi mantenimendukoena deia jaso dugu. Bertara hurbildu nahi dutenentzat ea osatzen den behar den taldea aurrera jarraitu ahal izateko.



AGINAGA

LONTXO ZUBIRIA

Ospakizunak



Hiru urte badira, Aginagako traineruak irabazi zuen lehenengo Kontxako banderaren urteurrena ospatu genuela. Egun ederra izan zen 2007ko hura. Aurten berriz ospatu dugu irailaren 11n gure herritarrek duela 50 urte irabazi zuten bigarren bandera.

Mende erdia pasa da harrez gero, baina babesle dirudunen bat etorriko balitz beste banderaren bat irabazteko aukera izango genukeela iruditzen zait. Beno, irabazten saiatu behintzat bai. Banderaren ospakizun kontu hauetan, hala ere, bada puntu bat ohar txiki bat merezi duena. Eliza ospakizun hauetatik alboratzeko garaia dela iruditzen zait; edo beste moduan esateko, eliza katolikoa eta bestelako gauzak ez nahastekoa. Gaur egun asko gara fede horrekin komulgatzen ez dugunak, eta orain katoliko euskaldunen buru jarri dituzten gotzain horiekin are gutxiago. Beraz, festa zibila antolatu dezagun.

Aginagako ospakizunak utzita, baina arraun kontuetan beti, lerro hauek idazten ari naizen honetan oraindik erabakitzeke dago aurtengo Kontxako banderaren irabazlea. Bi bizkaitarren kontua izango dela dirudi, baina dena ikuski-



zun dago oraindik. Aginagatarra naizen aldetik, Kaikuren alde egingo dut, han baitugu Iñaki Errasti. Animorik handienak Iñaki! Aupa Kaiku!

Bestetik, abuztuaren amaieran-iraila hasieran, isurketa izan zen Oria ibaian. Honek kalteak eragin zituen errioko arrain askoren artean. Baten batek argazkirik edo atera bazuen, NOAUA!ra bidali edo eraman, mesedez.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

Ez hurrundu



Artean gazteagoa nintzela, banoa gelara Amunduko ilusio eta motibazio handienarekin klasea ematera eta nik erreleboa hartu nion irakaslea han agertu zitzaidan. Zer deu, Eneko! bota zidan. Eta nik ea A ereduko ikasle hauek euskalduntzen ditugun! Eta egia esango zidala aitortu zidan: ez nituela euskaldunduko. Nire artean, earki hasi gattuk. Gogoz kontra, bortxaz alperrik ibiliko nintzela. Bi aldeentzat desmotibazioa, kaltea, borroka, gorrotoa... baino ez nuela lortuko asmo horiekin. Eman beharreko kurrikuluma eman beharra neukala, baina gainerantzean, ez estutzeko gehiegi. Ikasleen egunean eguneko interesa piztu edota asetuko duten euskal gaiak aukeratzeko eta hitz eginarazteko, sudur puntan jartzen zaien hizkuntzan. Asmoa ez hurruntzea dela eta ahal bada inor gerturatu... horixe irabazten dugula.

Izaera aldaketa, aldaketa bada, benetakoa izan behar du. Eta benetakoa izateko (nahiz eta kanpoko eragileek lagun diezaioketen aldaketan, sekula ez eragile inposatuak, berak aukeratuak baizik) norberak aldatu behar du. Besteren batek aldaketa beharren beharraz eragina, ez da benetako aldaketa.

Hau guztia esan ondoren, gure herriak aldaketa behar du (eta kanpo-eragileren batek sakea egin du; errestoa falta da).

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Ilusioz

Oporretatiko buelta gogorra izan ohi da askorentzat eta urtero pizgarri bila ibili ohi gara irailean: batzuk ikasturte berriari erronkak jartzten dizkiote, beste batzuk oporretako argazkiei begira bilatzen dute kontsolamendua.



Zorionez, irailean ohikoa den Herniorako igoerak, urriaren 12an ospatuko dugun Euskal Jaiak, txirridularitza-desafiyuak eta Zubieta Lantzen bilguneak aurrerago antolatuko dituen patinaje eta orienting ikastaroek ere udazkeneko egutegi iluna argitzen lagunduko digute.

Ikasturte berria bereziki ilusio handiz hasi duena eskola txikiko komunitatea da. Izan ere, azken urteko borrokarekin lortutakoari esker Lehen Hezkuntzako umeek herrian bertan jarraituko dute ikasten.

Usurbilgo Udalak udan egindako lanari esker ikastetxeak gune bat gehiago du jada eta, horrenbestez, jantoki zerbitzua ere martxan jartzeko aukera izango da. Ea bada eskola txikiko ume zein gurasoek duten ilusio hori herri guztira kutsatzen den. Irail ON!

Azken genero indarkeria kasuak salatu ditu udalbatzak

Erasoa jasandako emakumeei elkartasuna adierazi eta ekintza hauen egileak deitoratzen dituen mozioa aurkeztu zuen Xabier Mikel Errekondo alkateak. Herritarrei aipatu ekintzak salatu eta berriro ez errepikatzeko modu aktiboan parte hartzera deitzen zaie aipatu testuan.

Udalak bere aldetik, gizonezko eta emakumezkoen arteko parekidetasunaren alde lanean jarraitzeko asmoa agertzen du. Genero indarkeriaren biktimen diren gertukoei baliabide material eta pertsonal lagungarriak jartzeko prestutasuna adierazten da aipatu testuan. Mozioa, gobernu taldearekin batera, Aralar, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariak babestu zuten.

Bigarren mozioa

Alkaside taldekoek aldiz, testuaren aurka bozkatu zuten. Osoko bilkura berean hain zuzen, Alkaside udal tal-



UDALBATZA PLENOA, ARTXIBOKO IRUDI BATEAN.

deak gai berari lotutako mozioa aurkeztu zuen, baina gehiengoz ez zen onartu. Alkasidek aurkeztutako testuan, elkartasuna adierazten zaie emakume erasotuei, berdintasuneko gizartea lortzearen alde lan egiteko konpromisoa adierazi edota erakunde bitartekoak jartzea eta herritarrei halako egoerak arbuizatzea eskatzen zaie. Kasu honetan mozio honen bozketa honakoa izan zen: Alkaside, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariak alde, Aralar abstenituta eta gobernu taldea aurka.

Hondakinen Kontsurtzioak onartutako aldaketan aurka egiteko asmoa du Udalak

Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak onartu dituen bi erabaki tarteko, jurisdikzio bidetik jotzea erabaki du Usurbilgo Udalak. Kontsurtzioak Estatutuak eta Hondakinen Transferentzia eta Tratamendurako Zerbitzu Publikoa kudeatzeko Erregelamendua aldatzeko behin betiko erabakien aurka egin-

go du Udalak. Uztaila amaierako osoko bilkuran, Udala ordezkatu duten abokatu eta prokuradoreak izendatu zituzten.

Erabakion alde bozkatu zuten, Aralar eta ezker abertzaleko udal ordezkariak. Aurka agertu ziren, Alkaside, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko udal ordezkariak.

Asteburu honetan, Santuenean jai!

Aurreko asteko NOAUA!n aurreratu genuen bezala, ekitaldi ugari iragarri dituzte asteburu honetarako Santuenean.

Irailak 17, ostirala

17:00 Txupinazoa eta txokolatada (jubilatuen taberna aurrealdean).

Ondoren, globo gerra.

18:30 Buruhandiak.

19:00 Sardina jana txarangarekin.

Jarraian, triki-poteoa.

21:00 Musikarien afaria.

Ogitartekoak egongo dira karpan afaldu nahi dutenentzat.

00:00 Kontzertuak: Denis,

Despervicio, Odolaren Mintzoa.

Ondoren, dantzaldia Joxpa

taldearekin.

Ondoren, gazte jokoak: altxorraren

bila, txerri harrapaketa, globo gerra.

Irailak 18, larunbata

11:00-14:00 Haur jolasak, puzgarriak.

14:00 Haur bazkaria. Bakoitzak

berea ekarrita, edariak eta postrea bertan banatuko dira.

16:00 Mus txapelketa (izen-ematea 15:30-16:00).

16:00-19:00 Haur jolasak.

17:30 Txokolatada (Tragoxka parean)

19:00 Buruhandiak.

20:30 Kantu-afaria Josunerekin.

00:00 Dj Larra goizaldera arte.

Irailak 19, igandea

12:00 Toka.

12:30 Hamaiketako jubilatuen taberna aurrealdean.

14:00 Herri bazkaria.

17:00 Herriko dantzarien

emanaldia. Ondoren, dantzaldia

Obaneuke taldearekin. Jarraian

buruhandiak.

19:30 Piper dastatzea txarangarekin.

21:00 Jai-amaiera. Traka, suzko-zezena.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behea
(Artzabal): 943 36 09 80

USURBIL
ileapaindegi mistoa
ZUBIALURENEA 4
943361951

Patri Jatetxea
K/nagusia 14. © 943 362 725

III. Baxurde Krossa igandean

Gaztetxoei zuzendutako lasterketak ere izango dira aurtengoan

Azken entrenamendu saioetarako baino tarte gehiagorik ez da geratzen jada. Igande honetan ospatuko da III. Baxurde Krossa. Herria zeharkatuko duen hamaika kilometroko ibilbidea osatu beharko dute alde zurretik edo proba egunean bertan izena emango duten lasterkariak. Honakoa izango da irteera ordu eta lekua; goizeko 11:00etan, Mikel Laboa plaza. Helduen segidan, aurtengo berrikuntza nagusia; gaztetxoek lasterketak burutuko dira.

Aldez aurretik izena emateko aukera dago herrikrossa.com web orrialdean. Edo bestela, Oiarde Kiroldegian irailaren 16ra arte, 8 euroren truke.

Igandean ere eman daiteke izena

Proban parte hartu nahi duenak, igandean bertan izena eman dezake, Mikel Laboa plazan kokatuko den irteera gunean bertan, goizeko 9:00-10:30 artean. 10 euro ordaindu beharko ditu partaide bakoitzak.

Mikel Laboa plaza, irteera eta helmuga

Eguna: irailak 19, igandea.

Ordua: 11:00.

Ibilbidearen luzera: 11 km.

Irteera eta helmuga: Mikel Laboa plaza.

Izen ematea: alde zurretik, www.herrikrossa.com web orrian eta irailaren 16ra arte, Oiarde Kiroldegian, 8 euroren truke.

Proba egunean, 10 euro. Irteera gunean bertan, 9:00-10:30 artean.

Gainera: gaztetxoei zuzendutako lasterketak. III. Baxurde Krossa hasi ostean.

Antolatzailea: Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea.



LASTERKARIAK, MIKEL LABOA PLAZATIK ATERAKO DIRA GOIZEKO 11:00ETAN.

Iazko ibilbide bera

Aurreko edizioen ildo beretik, III. Baxurde Krossak ere ibilbide bera izango du. Lasterkariak Mikel Laboa plazatik abiatuko dira, Kaxkoa, Santuenea, Zubieta edo Kalezar zeharkatu ondoren, hamaika kilometroko ibilbidea osatuta berriz irteera

gunera itzultzeko.

Lasterkari azkarrenak, helmugara ailegatuko diren lehenengoak sarituko dituzte, baina partaide guztien artean ere zozketarik ez da faltako.

Baxurde Txiki taldeko kideek lasterketa antolatzen lagundu duten guztiak eskertu nahi dituzte.

Gaztetxoak ere, lasterka

Helduak lasterka hasi ostean, gaztetxoek txanda izango da segidan. Baxurde Krossaren hirugarren ediziorako Baxurde Txiki taldekoek prestatua duten berrikuntza nagusia. Antolatzaileek adierazi dutenez, “adinaren arabera distantzia izango dute lasterketa hauek eta parte hartzaile kopuruaren arabera irteera desberdinak emango zaizkie”. Lasterketa hauetan, parte hartzea doakoa izango da. Indarrak berritzeko, ibilbide amaieran partaide bakoitzak hamaiketako txiki bat jasoko du.

Parte hartzaile guztiek baldintza bakarra bete beharko dute, usurbildarrak izatea. Hortik aurrera, Udarregi ikastolako ikasleekin bertako Kirol Koordinatzailea jarriko da harremanetan. Baina nahiz Usurbilen bizi, herritik kanpo ikasten duten gaztetxoek ere haiei zuzendutako krossean parte hartu ahal izango dute. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, kasu honetan, “Udarregi ikastolara deitu beharko dute eta Kirol Koordinatzaileagatik galdetu”. Ikastolako telefono zenbakia honakoa da: 943 361 216.

Usurbilen, antzezleak alkate

II. Topa Eszenikaren bitartez, ikastaro eta emanaldi ugari egunotan

Mikelenak” izena du Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolakoek egunotan ospatuko den II. Topa Eszenika ekimenaren barruan eskainiko duten antzezlanak. Mikel Laboaren omeneko obra ostiral honetan ikusi ahal izango da. Baina gehiagorako emango du, Txerriki Antzerkik antolatuta ikastarolak eta emanaldiak uztartuko dituen euskarazko antzerki esperimentazioan oinarritutako lau eguneko egitarauak.

Lau emanaldi, ikastaroak, aurkezpen saioa... Antzerkigintzaz gozatu eta trebatu nahi duenak Sutegiko auditorioan du hitzordua egunotan, irailaren 16tik 19ra. Txerriki Antzerki taldekoek goiz eta arratsalde parterako ikastaroak antolatu dituzte. Izen emateko azken eguna asteazken hau zen, hilaren 15a.

Laboaren omenez

Iluntzetan berriz, emanaldi desberdinez gozatzeko aukera izango da; tartean, ostiralean, irailak 17, Lasarte-Oriako Landaberri Antzerki Eskolakoek ekarriko duten obra berriaz: “Mikelenak”. Mikel Laboaren omenez, bere abesti eta lana agertuko dituzte. “Giroa, gizartean edo gudan bere presentzia edo eragina nola suma dezakegun. Badira eszena batzuk bere kantuetatik eratorriak. Esperimentazioa ere bada”, adierazi dute taldetik. Ohiko elementuekin, ezohiko antzezlanak izango da beraz, antzerki eskolako esanetan, “Laboak berak egiten zuen moduan”.



SUTEGIN ENTSEATZEN IZAN ZIREN AURREKO ASTEAN LANDABERRI TALDEAK.

Antzezlanak izan arren, musikak pisu nabarmena izango du emanaldian. “Musikak antzezlanaren lotura lana egingo du”, adierazi dute Landaberrikoek. Azken egunotan, emanaldia eskainiko duen gune berean entseatzen aritu da taldea. Saioak izango du berezitasunik, antzezle lanetan jardungo duten partaideei dagokionean. “Taldea hasi berria da, urtebete darama. Azpimarratu behar da talde berezi bat dela, euskaldun berri eta euskaldun zaharrekin osatua”, zehaztu dute antzerki eskolatik.

Euskaldun berri eta zahar

Antzerkia dute zaletasun, eta euskara berriz, antzerki lanetarako eta euren arteko komunikaziorako tresna. Esperientzia aberasgarritzat jotzen dute, bilgune berean, euskaltegitik datozen ikasleak euskaldun zaharrekin biltzen

baitira. Halere, guztiek badute ezaugarri komun bat; euskarazko antzerkigintza dute gustuko, eta esperimentazio lanean dihardute gaur egun. “Gure arteko harremanari batu diogu antzerkia eta antzerkiari batu diogu baita ere, hizkuntza. Euskaraz zuzentzen gara. Euskara bihurtu da gure hizkuntza. Beste leku batean ezagututa, agian ez zen izango hala”, diote Landaberrikoek.

Hizkuntzaz gain, antzerkigintzak gainera, bestelakorik ere ematen die; askatasuna adibidez. “Lurralde askea da, nahi duzuna egin dezakezu eta ez dago inolako lotsarik, aurreiritzirik, eta inork ez dizu ezer txarrik esango. Azkenean, hori gaur egun oso zaila da aurkitzea. Beste deskonektatze bat da, indarrez betetzen zaitu. Gustura etortzen zara eta aste osoko guztia ahazten duzu. Beste bat zara, terapia ona”, adierazi dute Landaberrikoek.

Emanaldi gehiagorako prest

Lasarte-Orian joan den maiatzeko Lan eskaini zuten lehen emanaldia. Bigarrena, II. Topa Eszenika barruan eskainiko dute. Landaberri Antzerki Eskolakoek antzezlanak ikustera gerturatzeko gonbita luzatzen diete usurbildarrei. Aurrera begira, aukera izanez gero, prest daude saio

gehiago eskaintzeko ere. “Lan bat eginda dago, pena da behin edo bitan eskaintzea. Askok aberatsagoa da errepikatzea, gehiago gozaten baita. Lehenbiziko aldietan pixka bat urdu-riago zaude, eta gero jada, gozatzera iriteten zara. Aukera badugu, egingo dugu”, adierazi dute Landaberrikoek.

Memoria Historikoari buruzko beste antzezlan bat, “Garraxi isilak” izeneko estreinatua dute lehendik. Obra honekin ere emanaldi gehiago eskaintzekoak dira; hilaren 24an Zaldibian adibidez. Oso pozik daude, obra honek izan duen harre- rarekin.

Landaberri, sendotzen ari den eskola

Jada, bostehun herritarretik gora bildu eta zortzi urteko ibilbidea osatu duen Landaberri Antzerki Eskolak erronka berriez beteriko ikasturtea hasi du. Orain arte, antzerki eskolak 6 urtetik gorako haurrei eskaintzen zitzaizkien, baita dantza ikastaroak ere 5 urtetik gorakoei. Bide bat egina dute, txikitatik alor honetako hezkuntza jasotzeko, Landaberri diotenez, “oinarri sendo eta oso egituratuarekin gainera. Oso ondo errotua”. Iaz, hamalau irakasle aritu ziren lanean.

Ikasturte honetan, bilgunea antzerki eta dantza eskolan bihurtu nahi dute. “Lasarte-Oriako Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola izenarekin hasiko gara”, iragarri dute. Helburua herrian haien oihartzuna hedatzea da, edo urteotan egin duten moduan, zabalkunde prozesuarekin jarraitzea. Gogorarazten dute-



LANDABERRIKOAK KALE ANTZERKI EGUNEAN ERE HARTU ZUTEN PARTE.

nez, “auzo batean hasi ginen, ikastolara pasa ginen gero, eta orain herrira zabaldu da. Indar handia hartu du, eta ez antzerkiak bakarrik, antzerkiak eta dan-

tzak; dantza garaikideak, euskal dantzak eta sorkuntza dantzak”. Dioten moduan, antzerkigintza indartsu eta bizirik dago Lasarte-Orian.

II. Topa Eszenika, lau egunotarako egitaraua

Irailak 16, osteguna

20:00 “Herio heroi” antzezlanaren irakurketa dramatizatua. Sarrera: 3 euro.

Aktoreak: Ainhoa Alberdi, Amaia Corral, Oier Guillan. Jantziak: Idoia Beratarbide. Musika: Ander Fernandez. Oier Guillanek idatzitako testua. Etortzearen diren garai zaharren orainari buruzko komedia absurdoa, Metrokoadroka sormen ekimenaren eskutik. Zprist eta Geinst anaia umezurtzek ezustean aitaren gorpua haien gain hartu beharko dute.

Irailak 17, ostirala

16:00-19:30 Ikastaroa: Teatroa eta Poesia. Oier Guillan eta Iñigo Ortegaren eskutik.

20:30 “Mikelenak (Mikel Laboari omenaldia)” antzezlan. Landaberriko helduen taldearen eskutik. Sarrera: 3 euro.

Irailak 18, larunbata

10:00-13:30 / 16:00-19:30 Ikastaroa: Aktorea eta pertsonaia. Adierazpena eta sorkuntza. “Esentziak”, antzerkiaren lehen barneratze prozesuak. Amaia Fernandez, Ainhoa Alberdi eta Margari Altolagirrenaren eskutik.

20:30 Antzerkia: “Oteiza ezberdin Gizartea”. Aldatzen Laguntzen Taldearen eskutik. Sarrera: 3 euro. Jorge Oteiza eskultore oriotarrari buruzko obra. Oteiza eta bere elektrizistaren arteko harremana, Ion Martinezek interpretatutako bi pertsonaien bidez. Oteizaren gizarte gogoetak eta elektrizistak horren aurrean dituen pentsamenduen adierazpena.

Irailak 19, igandea

18:00 EHAZE Antzerkizale Elkarteari buruzko aurkezpen mahai-ingurua. Sarrera: doan. Antzerkigintza



euskaraz egiten duen jendea batu eta euskal antzerkia bultzatzea dira, elkarrearen xedeak. Informazio gehiago: antzerkizale@hotmail.com.

20:15 Binabina taldearen “Munstroa” antzezlan. Sarrera doan. Biziraupenak bultzaturiko heriozko lehia bortitza. Euskal Herrian ongi ezagututako gerra eternoa. Gizakia munstroaren aurka. Oraingoan, historia, galtzaileak kontaktzen du.

Oharra: ekitaldi guztiak Sutegiko auditorioan.

Antolatzailea: Txerriki Antzerki.

EPA-n matrikulazioa zabalik, 18 urtetik gorako herritarrentzat

Hizkuntzak, informatika, zientziak... Denetarik ikasi liteke HHI-EPA-n, edota Bigarren Hezkuntzako titulua atera, baita sarbide frogak prestatu ere. Guztia, doan gainera. Baldintza bakarra bete behar da; gutxienez, 18 urte izatea. Ikasturte honen nondik norakoan berri, Agerialdera hurbilduta jaso daiteke egunotan. Alberto Alonso eta Mari Jose Oiarzabal irakasleek interesdun guztiei bertaratzeko gonbita luzatzen diete, euren esanetan, ikasteak ez baitu helmugarik, "ikastea ez baita inoiz berandu".



ESKARIAREN ARABERA MOLDATUKO DUTE IKASKETA ESKAINTZA.

NOAUA! Zer da EPA?

Mari Jose Oiarzabal. Helduentzako hezkuntza da, Eusko Jaurlaritzaren doako eskola ofiziala. EPA-n 18 urtetik gorakoek Bigarren Hezkuntzako graduatua ateratzeko aukera dute, baita arlo solteak egiteko aukera ere; informatika, hizkuntzak. Alfabetatu nahi duen jendea, adinekoak, etorkinak... Horiek ere aukera dute EPA-n.

Alberto Alonso. Unibertsitateko sarbide frogaz aparte, Goi Mailako Zikloetako sarbide frogaz ere presta dezakete. EPA euskaraz HHI, Helduen Hezkuntza Iraunkorra da. Iraunkortasun horretan oinarritzen da hezkuntza hau guztia. Gaur egun inoiz baino gehiago ikusten dugu jaiotzetik hil arte ikasi beharrean gaudela. Askok tituluaren orde, haien desio eta gogoak betetzeko aukera bat nahi izaten dute.

N. Aurtengorako zer nabarmendu nahi zenukete?

A. A. Aurten eskaini nahiko genuke, mailaren arabera, urtebete -OHO-ko titulua dutenentzat- edo bitan, Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko aukera. Hasiera batean goizez.

M. J. O. Gero, dagoen eskariaren arabera eskaintza moldatuko dugu.

N. Adin eta helburu desberdineko ikasleak biltzen dira EPA-n. Zer nolako talde giroa izan ohi duzue?

A. A. Jendea zerbait ikasi nahian dator. Baina hona etorri eta gero, ikaslea kontu-

ratzen da bere gogo hori beste askok badutela eta lagun berriak egiten dituzte. Harreman berezia sortzen da. Ez dugu ahaztu behar EPA-ren aspektu sozialak; ikasleen berriketa saioak, kafea hartzen dute... Beraietzat, osagarri izugarria da. Ikastera baina baita beste jende batekin egotera ere badatoz.

N. Ikasgeletatik kanpo ere hainbat ekintza osagarri antolatzen dituzue?

A. A. Orain arte adibidez, "gure bazterrak" izeneko modulua izan dut. Horren barruan txangoak egiten genituen Euskal Herri inguruan dauden biotopo, museo edota zinemara.

M. J. O. Artekoek urtean behin Espainiatik kanpora gaiari lotutako bidaian joaten dira astebetetz. Iaz Italian izan ziren. Frantseseko irakasleekin ere noizbehinka irteten dira frantsesa praktikatzera.

N. Zer nolako esperientziak bizi dituzte ikasleek?

A. A. Lehengoan emakume batekin egon nintzen, 15 urte arte guztiz analfabetoa zena. Bere kabuz ikasi zuen irakurtzen. Gugana etorri zenean, duela hamar bat urte, hasi zen gure lehenbiziko ikastaroekin. Pixkanaka atera zuen garai hartan genuen graduatua. Gero Bigarren Hezkuntzako graduatua gainditu zuen. Unibertsitaterako prestatu eta psikologiako laugarren ikasturtean dago. Posible da.

Matrikulazioari buruzko informazioa

Epea: iraila amaitu arte.

Noiz: astelehenetik ostiralera, goizez.

Ordutegia: 10:00-12:00.

Lekua: Agerialde eraikina (saihetsetik sartuta).

Informazio gehiago: Usurbilgo egoitza, 943 361 273 (10:00-12:00); Lasarte-Oriako egoitza, 943 376 443 (9:00-13:00 edo 15:00-19:00).

Oharra: Usurbilgo eta Lasarte-Oriako HHI-EPA zerbitzuak bateratuta daude. Usurbilgo zein Lasarte-Oriako 18 urtetik gorako herritarrek, udalerrri bateko zein besteko eskaintzatan izena eman dezakete. Adibidez, unibertsitateko sarbide frogaz Lasarte-Orian prestatu behar da.

Ingeles ikastaroa Zubieta Lantzen-en eskutik

Iaz ingeles eskolak hartzen hasi ziren hainbat zubietar. "Astean behin Kaxkapen ordu eta erdiz biltzen ginen irakaslearekin eta batez ere ahozkoa landu genuen. Aurten jarraitzekotan gara. Oraingoan 3 lagun gaude eta ingeles maila ertaina daukagu (First Certificate herdoildua-edo)".

Informazio gehiago:
zubietalantzen@gmail.com

Autorik Gabeko Eguna ospatuko da datorren astean

Mugitu adimenez eta bizi hobeto lelopean, Autorik Gabeko Eguna antolatu du Usurbilgo Udalak irailaren 22rako. Bereziki etorkizuneko belaunaldi izango diren ikasle gaztetxoei zuzenduriko ekitaldiez hornitu dute egun horretarako egitaraua.

Hilaren 22an nazioartean burutuko den Autorik Gabeko Egunari lotutako ekitaldiak Usurbilen ere antolatu dira. Goizetik arratsaldera, ibilgailu pribatuaren ordez garraio bide publikoan doan bidaiatu ahal izango da. Arratsalde partean bestalde, haur eta gaztetxoei zuzendutako ekitaldiak izango dira.

Gomendioak

Autorik Gabeko Egunaren haritik, eguneroko mugikortasunari lotutako zenbait aholkuz ohartarazi nahi du Usurbil Agenda 21-ek. Laburbilduz, honakoak:

-Zure esku dagoen bide-gorri sarea erabili.



IAZ BEZALA, TXOKOLATEA BANATUKO DA ARRATSALDEAN.

-Lanera edo eskolara bizikletaz joan zaitetzke.

-Utzi autoa eta ibili oinez.

-Zure esku dagoen garraio bide publikoaren eskaintzaz ez ahaztu.

-Ibilgailu pribatuaren ordezko aukerak hobetsi.

-Aukera duzunean, autoa partekatu.

-Oinezkoei oztopo ez egiteko moduan aparkatu.

-Oinezkoei lehentasuna eman eta errepidean txirindulariak errespetatu.

-Trafiko arauak errespetatu.

Irailaren 22an,
kaxkoa oinezkoentzat
izango da

Hona hemen, Autorik Gabeko Egunerako Usurbilgo Udalak prestatu duen egitaraua:

9:00 Kaxkoa trafikoarentzat itxiko da. Egun guztian zehar, Donostia edo Zarautz aldera autobusez edo trenez doan bidaiatzeko aukera.

15:30-19:30 Puzgarriak Kaxkoko kaleetan.

17:00 Txokolata bizkotxoekin Udarregi ikastolako DBH 4-ko ikasleek banatuta. Bertan, beranduago zozketatuko diren bizikleten txartelak banatuko dira.

Ondoren, Zumarte musika eskolako trikitilari eta txistulariak kaleetan zehar, buruhandiek.

20:00 Bizikleten zozketa pilotalekuan.

Antolatzailea: Usurbilgo Udalak.

Kaixo lagunak!

LH1eko ikasleak gara, bai bai ez zarete Lnahastu, aurten lehenengo mailan gaude! Hiru talde gara, gure argazkiak bidaltzen dizkizuegu.

Muxu handi bat



ETAren adierazpenaren harira

“Eraso ekintza armaturik ez burutzeko” erabakiaren berri eman zuenetik hona, badirudi aro berri bat irekitzear dela euskal politikagintzan. ETAk hilabete hasieran plazaratu zuen agiriaren harira, Usurbilgo udaletxean ordezkatuta dauden indar politikoaren iritziak bildu ditugu. Hemen dituzue alderdiek idatziz igorri dizkiguten balorazioak.

EAJ-PNV Usurbil: “Borroka armatua behin betiko bukatu dela iragarri behar du ETAk”

ETAren irailaren 5eko agiria eta honen ondotik izandako zenbait erantzun direla eta, Usurbilgo EAJ-PNVk zera adierazten du:

1.- Euskal Herriak ez dio ezer zor ETARI. Aitzitik, ETA dago zorretan: bakea zor dio Euskal Herriari. Eten gabe eskatu izan dio herriak bakea. ETAk ez ditu berriro zapuztu behar euskal gizartearen bake-nahia eta bake-itxaropena. Borroka armatua behin betiko bukatu dela iragarri behar du ETAk, egiaztatzeko eran gauzatu.

2.- Erasoko ekintzarik ez burutzeko erabakiaren berri eman du ETAk eta horrek arnasa eman die makina bat pertsona mehatxatutari eta beren etxekoei,

hala nola gizarte osoari.

3.- Ezker abertzale politikoa da, historian lehen aldiz, ibili beharreko bidea ETARI erakusten diona, hau da, bide baketsu, politiko eta demokratikoak bakarrik direla onargarriak; ekarpen ukaezintzat jo du ekintza armatuak etetekeo ETAren erabaki aldebakarrekoa, mugagabea eta baldintzagabea; erabaki hori ezker abertzalearen beraren eztabaida eta ondorio estrategikoen testuinguruan kokatu du; eta ondorioztatu du, ETAren konpromisoarekin, atzerabiderik gabekoa bilakatzen dela fase politiko berri baten hasiera.

4.- Euskadiren etorkizun politikoa erabakitzea euskal herritarrei eta hauen

ordezkari politiko legitimoen dagokie, inor baztertu gabe eta ETAren zainzaririk eta esku sartzerik gabe. Sendotzeko, demokraziak beharrezko du erabaki politikoetan alderdi politiko guztiek esku hartu ahal izatea. Funtsezkoa da, beraz, ezker abertzale politikoa legez kanporatzen duten Alderdi Politikoaren atalak indargabetzea.

5.- EAJ-PNV prest dago, beste garaietan bezala eta bere ibilbide historikoa kontuan hartuz, oinarritzko giza eskubide guztien errespetuaren eta Euskal Herriaren erabakitze eskubidea gauzatearen alde lan egiteko, Euskadin bakea eta normalizazio politikoa eraikitze helburuz.

PSE-EE Usurbil: “Ezker Abertzaleak ETARI esan behar dio behin betiko utzi behar dituela armak”

ETAren azken iragarpena, 30 urte lehenago bukatu behar izan zuen borrokaren amaierarako pauso txiki bat da. Bere ideiak inposatzeko armak erabiltzen dituenari, armak erabiltzeari utziko diola entzutea, beti da ona.

Baina dagoeneko 11 alditan baino gehiagotan iragarri du su-eten edo tregua edo dena delakorik, eta beti atentatu berriekin amaitu da.

Dagoeneko erdizkako erabakiek ez dute balio. Batetik esaten da duela hilabete batzuk atentaturik ez egiteko erabakia hartu duela eta, bestetik, autonomiak diren langile batzuk estortsio-gutunak jaso dituztela iraultza-zerga exijituz. Zein

ETARI sinistu behar diogu? Atentaturik egingo ez duela diotenari edo langile hauek mehatxatzen dituenari?

Nik Ezker Abertzalearen borondatean sinisten dut, kapitulua itxi eta bide politikoaren barruan soilik lan egiteko borondatean. Baina pauso definitiboa eman behar du Ezker Abertzaleak, armak betiko utzi eta disolbatu egin behar duela adierazi behar dio ETARI.

Ekintza armatuen behin behineko eten honek ez nau lasaitzen, baten batek hori pentsa badezake ere, ze aurreko 10 aukeren ondoren, samin gehiago izan zen eta lagun eta kide gehiago lurpean.

Talde terrorista batek gure agenda

markatu gabe, euskal gizartea sobera heldua da eta badaki nola egin behar dituen gauzak.

Iragarpenaren momentua ere ez da oso sinesgarria, hauteskundeetara aurkeztu ezin dutenek, euren zerrendak legeztatu ahal izateko garaian, borroka armatua gaitzetsi eta arbuizatzeko egoeran aurkitu ez daitezten.

Ez dut nire erantzuna pesimista moduan hartzerik nahi, gaur egun hala bada ere, ze argi daukat etorkizun ez oso urruti batean, euskaldun guztiok espero dugun komunikatua ikusiko dugula, ETAren betiko disoluzio eta desargertzea iragartzen duen adierazpena.

Ezker Abertzalea Usurbil: “Itzulerarik gabeko prozesu demokratikoarekin erabat konprometitia gaude”

Ekintza armatuak etetearen ETaren alde bakarreko erabakiaren iragarpena bake eta konponbide demokratiko marko bateranzko ibilbidean sekulako garrantzia duen ekimena da. Adierazpen hau, azken hilabeteotan emaniko gertaera adierazgarrien testuinguru batean kokatzen da: Ezker Abertzaleak aurkezturiko “Zutik Euskal Herria” ebazpena, EA eta Ezker Abertzalearen arteko “Lortu Arte” akordio estrategikoa, eskubide zibil eta politikoen aldeko mugimendu sozial baten abiatzea, Aberri Eguna eta esparru sozial zabal independentista baten gara-

pena, aldaketa sozialaren alde sindikatu abertzaleek buruturiko Greba Orokorra... Euskal jendarteak aldaketarako eta konponbide estrukturaletarako duen irrikaren adierazle dira ekimenok.

Testuinguru honetan eta Ezker Abertzaleak Iruñean buruturiko agerraldian luzaturiko “erantzun eraikitzaileen” eskaeraren aurrean, berau ETaren partetik erantzun positiboa jaso duela deritzogu, prozesu demokratiko atzeraezin baten egonkortzean aurrera egitea bermatzen duen eszenario bat ireki delarik.

Ezker abertzalea itzulerarik gabeko

prozesu demokratikoarekin erabat konprometitia dago, egoera demokratiko osoa lortuz erabakitze eskubidea bururaino eraman nahi dugularik.

Horregatik, Ezker Abertzaleak bere oinarri sozialari dei egiten dio bere lan, borroka eta antolakuntza ahalegina inplementatzeko, prozesu demokratikoa eta irekitako aukera indartzeko. Era berean, dei egiten diegu eragile politiko, sindikal eta sozialei ere, Madril eta Pariseko Gobernuari eta Nazioarteko Komunitateari egoera berriari era eraikitzailean erantzuteko arduraz jokatzeko.

Hamaikabat Usurbil: “Hamaikabatek ez du ETA inolako prozesuren bermatzaile izatea onartzen”

Lehenik eta behin, Hamaikabatek bere poza agertu nahi du ETaren mehatxupean bizi direnek lasaitasun apur bat sentitu dezaketelako orain. Baina argi utzi nahi dugu Hamaikabatek ez diola ETArri aureskurik dantzatzeko, ETArri irauten duen bitartean euskal gizartea mehatxupean bizi delako.

ETArri desagertzea exijitzen dugu, behin betirako eta baldintzarik eta ordainketarik gabe, euskal herritarrok bakea nahi dugulako eta bakea merezi dugulako, eta

ez ETArri tutelaturiko eta aurretiko kondizioek baldintzaturiko bake prozesua.

Hamaikabatek ez du ETA inolako prozesuren bermatzaile izatea onartzen, alde batetik, ez diogulako bere buruari eman nahi dion paper hori onartzen, eta bestetik, ez dugulako abantaila partidista bilatzen duten bake prozesuetan sinesten.

Horregatik, Hamaikabaten iritziz, gure herriak ahalegin eta esfortzuekin eraiki dituen euskal erakundeak dira euskal herritarren borondatearen orde-

kari zilegiak eta hauen baitan eztabaidatu behar dira gure herriarentzat erabakigarriak diren gaiak.

ETA desagertzen denean, biolentziaren eta mehatxuaren amaieraren egiaztapena euskal gizarteari egokituko zaio. Jazarpen eta presio ekintza guztiak desagertu direla egiaztatzen dugunean bakarrik esan ahal izango dugu bakearen bidean benetako pausuak eman direla. Arlo honetan, euskal gizartea eta Hamaikabat bereziki oso zorrotza izango da.

Aralar Usurbil: “Urrats honek beste batzuk eskatzen ditu, ETArriengandik, baina baita Espainiako Gobernuarengandik ere”

Garrantzirik kendu behar ez zaion Urratsa da. Urrats honek beste batzuk eskatzen ditu, ETA berarengandik, baina baita Espainiako Gobernuarengandik ere.

Guztiok egin behar dugu ahalegina egoera hau sendotzeko eta behin betiko bihurtzeko. Egoerak eta uneak eskatzen duten ardura eta maila politikoa eskatzen diegu eragile guztiei, bereziki ardura gehien dutenei, bortizkeriak eragindako kalte guztiak aitortzeko eta konpontzeko, eta elkarriketaren bidetik akordio politikoa bideratzeko. Aralar, printzipioetan tinko, baina jokabideetan eskuzabala izango da helburu hauen lorpenerako bidean.

Argi eta garbi hitz egiteko garaia da. Alde bakarreko, behin betiko eta ordainik gabeko etena iragarri behar du ETArri. Espainiako Gobernuak ere argi utzi behar du bide politiko eta demokratikoen bidetik ideia guztiak direla defendagarri eta urratsak emateko prest dagoela, giza eskubideetan sakonduz, eskubide zibil eta politikoak berrezarrituz, alderdien legea bertan behera utziz, eta elkarriketaren bidetik bakea eta normalizazio politikoari heltzeko. Euskal Herriak eskertu egin behar die nazioarteko bitartekariari egindako lana. Mitchell senatariaren printzipioek inoiz baino gaurkotasun handiagoa dute:

gatazka konpontzeko bide baketsu eta demokratikoen eskusibitatea; desarmea; indarkeriaren kontrako jarrera; alderdien arteko bazterketarik gabeko negoziazioa; eta heriotzak eta zigorrak geldiaraztea.

Giza eskubide guztien aitortzak eta errespetuak inoiz baino gaurkotasun handiagoa dute.

ETArri Espainiako Gobernuari negoziatzeko egiten dion deiaren aurrean, Aralarrek argitu nahi du Euskal Herriaren etorkizun politikoa erabakitzea soilik euskal gizarteari dagokiola, eta horien ordezkari garen eragile sozial politikoen esku egon behar duela negoziatioak.

Autobus Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
06:55	>>	07:15	07:25	07:35	06:45	06:55	07:05	>>	07:30
07:40	>>	08:05	08:15	08:25	07:15	07:25	07:35	>>	08:00
08:10	>>	08:35	08:45		07:45	07:55	08:05	>>	08:30
08:40	>>	09:05	09:15	09:25	08:15	08:25	08:35	>>	09:00
09:10	09:30	09:35	09:45		08:45	08:55	09:05	>>	09:30
09:40	>>	10:05	10:15	10:25	09:20	09:30	09:40	09:45	10:10
10:40	>>	11:05	11:15	11:25	09:45	09:55	10:05	>>	10:30
11:40	>>	12:05	12:15	12:25		10:30	10:40	10:45	11:10
12:10	12:30	12:35	12:45		10:45	10:55	11:05	>>	11:30
12:40	>>	13:05	13:15	13:25	11:45	11:55	12:05	>>	12:30
13:10	13:30	13:35	13:45		12:45	12:55	13:05	>>	13:30
13:40	>>	14:05	14:15	14:25	13:20	13:30	13:40	13:45	14:10
14:10	14:30	14:35	14:45		13:45	13:55	14:05	>>	14:30
14:40	>>	15:05	15:15	15:25	14:20	14:30	14:40	14:45	15:10
15:10	15:30	15:35	15:45		14:45	14:55	15:05	>>	15:30
15:40	>>	16:05	16:15	16:25	15:20	15:30	15:40	15:45	16:10
16:40	>>	17:05	17:15	17:25	15:45	15:55	16:05	>>	16:30
17:40	>>	18:05	18:15	18:25		16:30	16:40	16:45	17:10
18:10	18:30	18:35	18:45		16:45	16:55	17:05	>>	17:30
18:40	>>	19:05	19:15	19:25	17:45	17:55	18:05	>>	18:30
19:10	19:30	19:35	19:45		18:45	18:55	19:05	>>	19:30
19:40	>>	20:05	20:15	20:25		19:30	19:40	19:45	20:10
20:15	20:35	20:40	20:50	21:00	19:45	19:55	20:05	>>	20:30
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	20:45	20:55	21:05	21:10	21:30
22:15	22:35	22:40	22:50	23:05	21:15	21:25	21:35	21:40	22:00

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08:00	08:20	08:25	08:35	08:45	06:45	06:55	07:05	07:10	07:30
09:00	09:20	09:25	09:35	09:45	07:45	07:55	08:05	08:15	08:40
10:00	10:20	10:25	10:35	10:45	08:45	08:55	09:05	09:15	09:40
11:00	11:20	11:25	11:35	11:45	09:45	09:55	10:05	10:15	10:40
12:00	12:20	12:25	12:35	12:45	10:45	10:55	11:05	11:15	11:40
13:00	13:20	13:25	13:35	13:45	11:45	11:55	12:05	12:15	12:40
14:00	14:20	14:25	14:35	14:45	12:45	12:55	13:05	13:15	13:40
15:00	15:20	15:25	15:35	15:45	13:45	13:55	14:05	14:15	14:40
16:00	16:20	16:25	16:35	16:45	14:45	14:55	15:05	15:15	15:40
17:00	17:20	17:25	17:35	17:45	15:45	15:55	16:05	16:15	16:40
18:00	18:20	18:25	18:35	18:45	16:45	16:55	17:05	17:15	17:40
19:00	19:20	19:25	19:35	19:45	17:45	17:55	18:05	18:15	18:40
20:00	20:20	20:25	20:35	20:45	18:45	18:55	19:05	19:15	19:40
21:00	21:20	21:25	21:35	21:45	19:45	19:55	20:05	20:15	20:40
22:00	22:20	22:25	22:35	22:45	20:45	20:55	21:05	21:15	21:40
22:30	22:50	22:55	23:05	23:15	21:45	21:55	22:05	22:15	22:40

LARUNBAT GAUETAN

00:00	>>	00:25	00:35	00:45
01:00	>>	01:25	01:35	01:45
02:00	>>	02:25	02:35	02:45
04:00	>>	04:25	04:35	04:45
05:00	>>	05:25	05:35	05:45
06:00	>>	06:25	06:35	06:45

LARUNBAT GAUETAN

23:15	23:25	23:35	>>	00:00
00:15	00:25	00:35	>>	01:00
01:15	01:25	01:35	>>	02:00
02:15	02:25	02:35	>>	03:00
03:15	03:25	03:35	>>	04:00
04:15	04:25	04:35	>>	05:00
05:15	05:25	05:35	>>	06:00

• Linea 101 (11/06/19 - 11/09/11) (1) Urdaitz (11/06/19 - 11/09/11) (12) Santurza

Tren Ordutegia

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06:00	06:15	06:24	06:39	05:47	06:01	06:11	06:20
06:30	06:45	06:54	07:09	06:17	06:31	06:41	06:50
07:00	07:15	07:24	07:39	06:47	07:01	07:11	07:20
07:30	07:45	07:54	08:09	07:17	07:31	07:41	07:50
08:00	08:15	08:24	08:39	07:47	08:01	08:11	08:20
08:30	08:45	08:54	09:09	08:17	08:31	08:41	08:50
09:00	09:15	09:24	09:39	08:47	09:01	09:11	09:20
10:00	10:15	10:24	10:39	09:47	10:01	10:11	10:20
11:00	11:15	11:24	11:39	10:47	11:01	11:11	11:20
12:00	12:15	12:24	12:39	11:47	12:01	12:11	12:20
12:30	12:45	12:54	13:09	12:17	12:31	12:41	12:50
13:00	13:15	13:24	13:39	12:47	13:01	13:11	13:20
13:30	13:45	13:54	14:09	13:17	13:31	13:41	13:50
14:00	14:15	14:24	14:39	13:47	14:01	14:11	14:20
14:30	14:45	14:54	15:09	14:17	14:31	14:41	14:50
15:00	15:15	15:24	15:39	14:47	15:01	15:11	15:20
15:30	15:45	15:54	16:09	15:17	15:31	15:41	15:50
16:00	16:15	16:24	16:39	15:47	16:01	16:11	16:20
16:30	16:45	16:54	17:09	16:17	16:31	16:41	16:50
17:00	17:15	17:24	17:39	16:47	17:01	17:11	17:20
17:30	17:45	17:54	18:09	17:17	17:31	17:41	17:50
18:00	18:15	18:24	18:39	17:47	18:01	18:11	18:20
18:30	18:45	18:54	19:09	18:17	18:31	18:41	18:50
19:00	19:15	19:24	19:39	18:47	19:01	19:11	19:20
19:30	19:45	19:54	20:09	19:17	19:31	19:41	19:50
20:00	20:15	20:24	20:39	19:47	20:01	20:11	20:20
21:00	21:15	21:24	21:39	20:47	21:01	21:11	21:20
22:00	22:15	22:24	22:39	21:47	22:01	22:11	22:20
22:40	22:47	22:56	23:11				

00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Ostiralera LANEGUNETAN
 00:00 Astelehenetik Igandera eta JAIEGUNETAN

Ospitalera autobusak

astelehenetik ostiralera (lanegunak)

Usurbil → Ospitaleak			
USURBIL	ZUBIETA	LASARTE	OSPITALEAK
07:15	07:25	07:30	07:45
08:15	08:25	08:30	08:45
09:15	09:25	09:30	09:45
10:15	10:25	10:30	10:45
11:30	11:40	11:45	12:00
12:30	12:40	12:45	13:00
13:30	13:40	13:45	14:00
14:30	14:40	14:45	15:00
15:30	15:40	15:45	16:00
16:30	16:40	16:45	17:00
17:45	17:55	18:00	18:15
18:45	18:55	19:00	19:15
19:45	19:55	20:00	20:15
20:45	20:55	21:00	21:15

Ospitaleak → Usurbil			
OSPITALEAK	LASARTE	ZUBIETA	USURBIL
-	07:00	07:05	07:15
07:45	08:00	08:05	08:15
08:45	09:00	09:05	09:15
09:45	10:00	10:05	10:15
11:00	11:15	11:20	11:30
12:00	12:15	12:20	12:30
13:00	13:15	13:20	13:30
14:00	14:15	14:20	14:30
15:00	15:15	15:20	15:30
16:00	16:15	16:20	16:30
17:15	17:30	17:35	17:45
18:15	18:30	18:35	18:45
19:15	19:30	19:35	19:45
20:15	20:30	20:35	20:45



ASTIGARRAGA-HERNANI-LASARTE-USURBIL

Irteera Usurbil

ASTELEHEN-LARUNBATERA
 07:15- 7:45- 08:15- 08:45
 09:15- 10:15- 11:15- 12:15
 12:45- 13:15- 13:45- 14:15
 14:45- 15:15- 16:15- 17:15
 18:15- 18:45- 19:15- 19:45
 20:15- 20:45- 21:15- 21:45
 22:15

IGANDE-JAIEGUNETAN
 15:15- 16:15- 17:15- 18:15
 19:15- 20:15- 21:15- 22:15

Irteera Astigarraga

ASTELEHEN-LARUNBATERA
 07:00- 7:30- 08:00- 08:30
 09:00- 09:30- 10:30- 11:30
 12:30- 13:00- 13:30- 14:00
 14:30- 15:00- 15:30- 16:30
 17:30- 18:30- 19:00- 19:30
 20:00- 20:30- 21:00- 21:30
 22:00

IGANDE-JAIEGUNETAN
 15:00- 16:00- 17:00- 18:00
 19:00- 20:00- 21:00- 22:00

TSST autobusak

ZUBIETA-LASARTE

LANEGUNETAN

Zubieta-Lasarte 7:25 / 08:25 / 09:25 / 12:40 / 13:40 / 14:40 / 18:40 / 19:40 / 20:40
 Lasarte-Zubieta 7:00 / 08:00 / 09:00 / 12:15 / 13:15 / 14:15 / 18:15 / 19:15 / 20:15

LARUNBATETAN (JOSIA-LANAK AMATZETAN)

Zubieta-Lasarte 08:15 / 12:45 / 15:05 / 21:35
 Lasarte-Zubieta 08:10 / 12:40 / 15:00 / 21:30

JAI EGUNETAN (JOSIA-LANAK AMATZETAN)

Zubieta-Lasarte 11:20 / 13:30 / 15:30 / 21:35
 Lasarte-Zubieta 11:15 / 13:25 / 15:25 / 21:30

Batasun orokorreko helburua
 www.tsst.info ☎ 943 36 17 41

BUS-TAXI

Astelehenetik Ostiralera
 ☎ 630 64 35 96*

Linea	Orduak	Orduak
1	Usurbil kaxkoa	7:30 10:30 13:00 15:30 19:00
2	Kalzera	7:32 10:32 13:02 15:32 19:02
3	Izartza	7:35 10:35 13:05 15:35 19:05
4	Ibarrola	7:38 10:38 13:08 15:38 19:08
5	Arrozain	7:42 10:42 13:12 15:42 19:12
6	Ixantxan	7:45 10:45 13:15 15:45 19:15
7	Urdaitz	7:48 10:48 13:18 15:48 19:18
8	Aginaga	7:55 10:55 13:25 15:55 19:25
9	Txokoalde	8:00 11:00 13:30 16:00 19:30
10	Urdaitz berriaren	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
11	Santurza	8:03 11:03 13:33 16:03 19:33
12	Usurbil kaxkoa	8:05 11:05 13:35 16:05 19:35
13	Santurza	8:10 11:10 13:40 16:10 19:40
14	Amin	8:12 11:12 13:42 16:12 19:42
15	Etxebarria ingurua	8:14 11:14 13:44 16:14 19:44
16	Alikortoa	8:17 11:17 13:47 16:17 19:47
17	Zubieta	8:22 11:22 13:

Agenda !

Irailak 16-19

II. Topa Eszenika (ikus 11. or).

Irailak 17-19

Santueneko festak (ikus 8. or).

Irailak 19 igandea

Baxurde krossa, 11:00etan Mikel Laboa plazan.

Irailak 22 asteazkena

Autorik gabeko eguna.

Irailak 24 ostirala

“Super plast, kale animazio ikuskizuna”, 19:00etan frontoian.

Goardiako farmaziak

Irailak 16, osteguna

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 17, ostirala

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 18, larunbata

Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 19, igandea

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 20, astelehena

Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Irailak 21, asteartea

Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Irailak 22, asteazkena

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Irailak 23, osteguna

De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Irailak 24, ostirala

Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Irailak 25, larunbata

Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Irailak 26, igandea

Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ

Chucla farmazia (22:00-09:00),

Kardaberaz, 48, Hernani (943 551 793)

**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Usurbilgo Futbol Eskolan

izena emateko epea irekita dago oraindik

Astehenean zabaldu zuten Futbol Eskolan izena emateko epea. Astelehen, asteazken eta ostiral arratsaldetan, 17:30-19:30 artean Haraneko bulegora hurbildu beharko da izena ematera. Irailaren 24a bitartean.

2000, 2001 eta 2002 urteetan jaiotako neska-mutilek parte har dezakete Futbol Eskolan. Deialdia 1999. urtean jaiotakoei ere zuzendua dago, baina hauekin aparteko talde bat osatzeko asmoa dute.

Kiroldegiko eskaintza

Lehorreko kirol jardueri dagokionez, mantentze gimnastika, aerobik, pilates, GAP, spinning, power dunbell edota

Aginagako Pala Txapelketa

Aginagako Pala Txapelketako hiru-agarren jardunaldia jokatu da ostegun honetan, 18:00etan.

Manuel Galarraga – Jon Olaizola
Gonzalo Bruño – Iñaki

Enrike Huizi – Xabier Murua
Eneko Harreguy – Unai Latallade

Josu Arruti – Imanol Zumeta
Pana – Esteban Roteta

Iban Arruti – Igor Alkorta
Garikoitz Alkorta – Mikel Aranburu

Gipuzkoako Pala Txapelketa

Irailak 17 ostirala, 18:30 Aginagan

Eskuz binaka Kadete 2. mailan

USURBIL-LAGUNAK

(Iñigo Ibargoi-en-Mikel Martinez)

Eskuz binaka Jubenilak 2. mailan

USURBIL-OIARPE

(Jon Zendoia-Imanol Zinkunegi)

Eskuz binaka Nagusiak 2. mailan

USURBIL 1-HERNANI

(Xabier Errasti - Asier Katalina)

Paleta Goma Gizonezkoak

Nagusiak 2. Maila

USURBIL-LOIOLATARRA



IRUDIAN, IAZ ESKOLAN ENTRENATZAILE MODUAN ARITU ZIRENAK.

banakako entrenamendu saioak programatu dituzte, astehenetik ostiralera.

Igerian ikasi nahi duten gaztetxoek aukera ugari dituzte eskura. Baita helduek ere, haientzat hastapen, hobekuntza eta igeriketa gidatua izeneko ikastaroak eskainiko baitira. Informazio gehiago, Kiroldegian (943 372 498).

Urrian hasiko da

Zirri-Borro tailerra

Zirri-Borro tailerreko ikastaroak Zurrian hasiko dira. Baina aurretik bilera bat deitu da ostiral honetarako, **irailaren 17an**, arratsaldeko 19:00etatik aurrera Zirri-Borro tailerrekoen egotzian bertan (estankotik behera joanda, San Esteban kalea 4 zenbakian).

Katekesian izen-ematea

Katekesian izena emateko aukera Kizango da datorren astean: irailaren 21ean eta 22an. Parrokiko bulegoetara joan behar da honako ordutegian: goizez 10:00etatik 11:30era eta arratsaldeaz 17:00etatik 18:30era.

Kilometroak, laguntzaile faltan

Aurten Kilometroak Pasaian eta Alizon egingo da, urriaren 3an. Bertan lanean aritzeko jende premian dira. Kilometroen antolamenduan (txosna, trafikoa...) laguntzeko moduan bazaude, jarri harremanetan Iñaki Ugarterekin (600 277 280).

ETXEBIZITZA

- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldia-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldia, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatua. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta opporraldiatarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela ximenea-ekin, sukaldia, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berritua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatzerik egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursaila. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldia, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldia handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasaren apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Taxi lizentzia bat salgai Usurbilen. Interesatuak Gipuzkoako Taxi Elkartearen eskura dezake informazio gehiago eta eginbeharrekoak 943 46 54 98.

- Txaramuneto auzoan garaje itxi bat alokatzen da 80 eurotan. Interesatuak deitu: 667715075.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauka, ondo zaindua, beti garajeen egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikotza du eta alfilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Aprilia Chester R-125 motorra daukagu salgai. Egoera onean eta prezio interesgarria. 661618970
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943364310.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajeen, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Pertsona baten bila gabilta irailetik aurrera eguerditan haurra ikastolatik etxera ekarri eta bazkaria emateko. Interesatuak deitu 696429899.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Usurbilen urte asko daraman emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, interna moduan edo ordutegi luzerako. Erreferentziak. 687348223 / 943364310.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltseritza lanetan aritzeko. 677593772.
- Esperientziadun arkitektura ikaslea udan zehar klase partikularrik emateko prest legoke 10-17 urte bitarteko gazteei. Tf: 628 06 54 70
- Neska gazte bat eskaintzen da udaran zehar klase partikularrik emateko, LH eta DBH mailak. 630 642 352.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gazteak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osoarako. Lanean berehala hasteko prest: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldeko 16:00ak arte garbiketa lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaiki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nitzuke. Interesatuak deitu 656446835

- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zerrn arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrik emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzari Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 3 urteko haur baten txamarra berde argi bat galdu dugu parkean. Aurkitu duenak Udaltzaingoa utzi dezala.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Plastikoa xuri batean sartutako artazi batzuk (ardiei ilea mozteko goraizeak) galdu ditut Alkartasuna kooperatiba eta Artzabal artean. 648191911
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiai kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatuan. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikuilu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkiak, mahaiaik, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ezkontzietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Potroak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Zorionak Miriam! Irailaren 21ean 10 urte beteko dituzu. Aginagako eskolako lagunenez partez zorionak eta ondo ondo pasa! Gogoz gaude hemen elkarrekin ospatzeko!

HILDAKOAK

Ana M^a Petisco Zaldúa
Irailaren 10ean hil zen
81 urterekin.



Usurbil
Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala

Zumartegi Poligonoa,
Aitezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92

943 36 10 79



Behoko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

ALKORTA
AUTOZERBITZUA

Frutak
Barazkiak
Etxeko produktuak
Izoztuak




DIGITAL+

antenas Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.

Orain Usurbilgo erdigunean
Ltd-ko kanal berri hauek
ikusteko aukera ...



elkano kalea 13 HERNANI

Tifnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com



Usurbil Kantuz

Usurbilgo kantu taldea
2010

Liburua salgai 3€tan
Noauain, Lizardin
eta Lauroken



Noaua!
www.noaua.com

Usurbilgo kantu taldea



Euskara?

Bai, nahi dut!



ikasi euskara eman izena

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

usurbil

ETUMETA AEK EUSKALTEGIA
Kale Nagusia, 45 behe. 20170 USURBIL

- AUTOIKASKUNTZA
- MINTZALAGUN
- EUSKALDUNTZE OROKORRAK
- HIZKUNTZ ESKAKIZUNEN PRESTAKETAK
(1.go, 2.garren, 3.garren edo EGA)

943 37 20 01
usurbil@aek.org





Ofizioen gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atalla pol. atalla, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.

igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue

teillatuak eta fatxadak

943 69 68 52
620 80 01 86

Obaba kalea 29, Asteasu



LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12



izagirreletrizitatea@hotmail.com

izagirre
Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Goiz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



MARGOAK - PAPERAK
FERNANDO PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN

nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78